

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Julen Sagarzazu Irureta Julen txiki

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1920-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Azkoitian jaio zen 1920an. Gurasoak kaletarrak zituen. 3 anai-arrebatan zaharrena da bera. Floreagako salesiarretan ikasi zuen Azkoitian. 14 urterekin eskola utzi eta lanean hasi zen abarkak josten. Azkoitiko dantza-taldeko partaide izan zen; gerora dantzako irakasle ibili zen, baita epaile lanetan ere. Azkoitiko "Izarraitz" futbol-taldean ere ibili zen; gero 21 urterekin Errealak fitxatu eta Donostiara joan zen "interior" postuan jokatzera. Tolosan ere jokatu zuen eta Azkoitiko entrenatzaile izan zen urte batzuetan. Azkoitian ezkondu zen 33 urterekin.

Zintak

AZK-015

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-04-01
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa

Pasarteak

1. 1920an Azkoitian jaioa

- **Erref:** AZK-015/001
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1920an jaio zen Azkoitian. Gurasoak kaletarrak zituen eta betidanik kalean bizi izan da. Aita zena Julenek zazpi urte zituela hil zen. Hiru anai-arrebatan zaharrena da.</p>

Transkripzioa

- Izena eta abizena esaten badidazu?
- Julen Sagarzazu.
- Ze urtetan jaio zinen?
- "Veinte. Diez de marzo veinte. Mil novecientos veinte".

- Eta beti kalean bizi izan zera?
- Bai.
- Gurasoak ere kaletarrak?
- Bai. Aitte zana nik zazpi urte neuzkela hil zan.
- Eta kaletarra zan?
- Bai, berau ere kaletarra zan. Ama zana alargun geratu zan eta nik zazpi urte, neu zaharrena; eta beste anaia gaztiao eta gero beste arreba, oin moja dao Erroman.
- Anai-arrebak?
- Bai. Hiru giñen.
- Zu gaztena?
- Ni zaharrena, larogeta zortzi urte.

2. Floreagan ibili zen eskolan 14 urtera arte

- **Erref:** AZK-015/002
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan Floreagan ibili zen "Hermanos de las escuelas cristianas" zeritzon. Gerra hasi zenean eskola itxi egin zen eta hura utzi zuenean, 14 urterekin, lanean hasi zen alpagatak josten.</p>

Transkripzioa

- Eta gaztetan eskolara eta?
- Eskolara Floridan, "Hermanuk" esaten giñun, "Hermanos de las Escuelas Cristianas" edo. Han.
- Hemen Azkoitin?
- Bai. Gero gerrie sortu zan eta gero gerrie sortute gero ba haretzek aldeñ in zebe eta, aldeñ edo bialdu edo zera in zittuen.
- Orduan nora jun ziñeten?
- Nik ez, ni gero hamalau urtekin laga eskolai, garai hartan hamalau urte arte izeten zan eta eskolai laga eta lane(r)a abarketak joste(r)a.

3. Euskaraz hitz egiten zuenari zigorra

- **Erref:** AZK-015/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan matematika, gramatika, dotrina, etab. ikasten zuten. Erdaraz ikasten zuten, euskaraz eginez gero zigorra izaten zuten. Mutilak eta neskak aparte ibiltzen ziren. 14 urterekin, eskola bukatzean, komertzioa eta batxilerra ikasten zuten eta hauek ordaindu beharreko ikasketak izaten ziren.

Transkripzioa

-Eta eskolan ze ikasten zendun garai hartan?

-Normal, eztaikit nola esan'e, normal.

-Dotriña edo?

-Dana, dotriña eta kontuk ataratzan eta Gramatika eta dana. Onak zien orduen zerak, "Hermanos de las Escuelas Cristianas" edo esaten zitxoan eta. Haixek onak zien.

-Maixu onak?

-Bai, onak.

-Ze ikasten zenuten, erderaz ala euskeraz?

-Ez, erderaz izeten zan eskolie. Eta euskeraz ez hitzeiteagatik, gero guk kostunbria hamen genduken ba euskeraz hitzeittie; errekreora ertetzen gedunien orduan izeten zan ba aro bat edo anillo bat ematen zan bati, eta hari [haure] ibiltzen zan ume artien bille aber zenek hitzeitten zun euskeraz, osea ordun erderaz hitz ein behar zan. Eta faltatzen zunak ba ematen zixon anillue eta harek beste baten bille eta harek gero eskolara sartzen giñanin ba eskolan: aber, zenek euki du anillu? Eta eskue jaso eta gero puntuek edo zera... Eta gero hurrungo hillebete edo hillebete terdire hona Madarixara edo Urrategire juten giñen eta ordun haxe zeukena, horrenbeste bider zera zeukena ba etzan juten. Kastigo hori ematen zeben.

-Eta neskak eta mutillak danak batera?

-Ez, orduen mutillak aparte. Han danak mutillak ibilli zien Florida zeran edo, danak mutillak. Eta gero hamalau urte arte, eta gero hamalau urtetik gora batzuek komertzixue, batxillerra eta komertzixue. Hori izeten zan pagautako eskolie. Eta beste danak, hamalau urte arteko beste korrientie ba debalde izeten zan.

4. Eskola orduetatik kanpo, futboleant eta pilotan

- **Erref:** AZK-015/004
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Eskola orduetatik kanpo harrapaketan eta futboleant jolasten zuten. 14-15 urterekin lagun arteko futbol taldea zuten, Izarraitz izenekoa. Gerra denboran frontoian pilotan ari zela Atano pilotariak ikusi eta Ordiziara eraman zuten binakako partidu bat jokatzera.

Transkripzioa

-Eta eskolatikan ta ateratakuan ze jolas eitten zittuzuen?

-Geure arteko zerak eta. Fubola're ez zan hainbeste, baiño, lapurretan ta lapurretan esaten giñon, alkar harrapatzen herrixen iguel ta, hola ibiltzen giñen.

-Eta futboleant?

-Fubolien bai.

-Ekipon baten ala lagun arten?

-Ez, gero lagunek kuadrillie genduken geuk zeran, hamalau-hamabost urte eta kuadrille geure lagun artin hamen osaute, Izarraitz izeneko ekipo bat formau gendun eta hantxe segiu.

-Azkoitiarrak danak?

-Bai, danok hamenguk, herritarrak.

-Eta pelotan ta afiziorik bazendun?

-Pelotan partido bat jokau nun. Praka zurixekin bai. Zera jokau nun, bi partidu, bat Villafrankan. Ordun gerra-denpora edo zera zan, ta hamen frontoin ibiltzen giñan pelotan ta han pelotan gabiltzela [bi] ikusitte, Luxiano Atano esaten giñun, eta harek zeuken kargue zeana, frontoiena, eta haren mende edo ez dakit ze inde, harek organizau zun partido bat eta, Villafrankan.

-Parejata o banaka o?

-Parejata. Eta gureztat haure txarra, neretzat behintzat haure behintzat txarra izen zan, zegatik hamen ohittute geunden lanazko pelotikin jokatzen ibiltzen, ta gero narruzko pelota hoixei, pelota bizixe, eta frontisen zera inde eta indarrik ez neuken, zea, kaztie ere bai eta aparte ez hola indartsue edo, ta galdu. Gero fubolin´e bai ibiltzen nintzen, eta gero fubolin.

5. Intxausti lantegian eta abarketak josten lanean

- **Erref:** AZK-015/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

<p>Gerra denboran, eskola bukatu zuenean, Intxausti lantegian hasi zen lanean. Abarketentzako telak, zakuak, etab. egiten zituzten. Etxean ere aritzen ziren joste lanetan. Garai hartan, Azkoitian, etxe atarietan eta kalean jardun ohi ziren abarketak josten.</p>

Transkripzioa

-Eta lanera?

-Lanera, gerra denporan lanera hasi nintzen Intxusti fabrikan edo.

-Zenbat urtekin? Eskola bukatuta gero?

-Bai. Bestela kalien edo etxien egitten gendun txortan lana; orduen txortan esaten zitxoan.

-Zer zan hori?

-Aulkixe, aulki bat zan. Han jarri eta han josi itten giñuzen. Erreportzaketan 'e bai. Eta fubolera ere zera juten giñen. Orduen mutil koskorrak, fubolkanpoik eta ez zeuen eta baso(r)a edo Illarra aldera, han baso bat arbola artien edo, eta haraiño jun eta han in, futboleant jokutzen gendun.

-Lanera esan degu, zer lan egiten zendun?

-Tela edo, erreportzaketako, abarketentzat tela, zakuak eta eitten zittun, Intxausti fabrikan.

-Eta abarketak eitten zittuzun?

-Bai, gero aparte abarketak, gero handik erten, etxera etorri eta etxien abarketak josi.

-Eta nun ikasi zenuen hori, taillarrean ala amak erakusten zizun?

-Ez, etxien. Eta kaleko ataixen ere bai. Garai baten hamen Azkoitixen hor plaza erdiko zera hortan edo jendie erreportzaketan eta txortan eta asko ikusten zan. Banaka-banaka, eta hantxe lan.

6. Anai-arrebatan zaharrena izaki, etxean eta kanpoan lan egin behar

- **Erref:** AZK-015/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Pezeta bat edo bi irabazten zituen, baina ama alargun geratu zen eta etxera dirua eraman beharra zeukan. Anai-arrebatan zaharrena zen eta sukaldean bera aritzen zen ama lanean zen bitartean.

Transkripzioa

-Hemen bazegoen lana hortik, ezta? Eta diru asko irabazten zenuen?

-Ez ez, eztakit pezeta bat edo bi edo ze izeten zan. Gutxi. Ama alargun, amak bere lanera jun behar izeten zuen fabrikera eta, ni arreputzaketan'e bai eta etxien ere koziñie zaittu in behar, amak errelebo edo zera itten zun eta.

-Gustatzen zitzaizun kozina?

-Gustau... Hure han zabillen bittartien sue piztute lagatzen nun nik zera eitten eta ni pelotaa, Goiko-losara etorri eta haure abandonante hantxe geratzen zan eta amak nahikue lan, haure puxket abandonau samar, atzera etxera etorri orduko sue emendaute ta.

-Baiña anai-arrebak lagunduko zizuten?

-Ez, ni zarrena nintzen. Eta abarketak puxkau te, eta ama zerantzat lana.

7. Soldadutza Lizarran eta handik frontera Montejurrara

- **Erref:** AZK-015/007
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>18 urterekin soldadu joan zen Lizarrara eta handik frontera terzio Montejurrara Rekete moduan. Soldadu raso kargua zuen eta beste soldadu bati laguntzen ari zela, bera zauritu zuten. Gerra amaitu zenean ama alargun izateagatik libratu zen, baina anaiak 18 urte bete zituenean, haren jornaia nahikoa zela aurrera ateratzeko eta berriz ere soldadu bidali zuten. Soldadutzara ez joateko belarriko arazoak alegatu eta urtebete besterik ez zuen egin.</p>

Transkripzioa

-Eta soldaduska?

-Gerra. Gerran izan nintzen, hemezortzi urtekin eta erittu ere hantxe ein nintzen.

-Nora jun ziñen?

-Soldau jun giñen baiña gero soldautzetiken eman giñuzen rekete bezela.

-Ze tokitara?

-Montejurra. Baiña Estellan ein gendun soldau eta gero Estellatik eman giñuzen frentera, eta frentien zera zan "Tercio de Montejurra", eta han baja asko izen zien bi mendi hartzen edo zera itten, eta baja haixek kubritzea gu soldau giñenak gero Rekete bezela edo hala eman giñuzen.

-Eta zer kargu zeukazun zuk?

-Ezerrez, soldao raso. Eta beste bat ataaten ari nintzela, haure erittute zauen, eta haure ataaten ari nintzela neu jo niñuen besuen.

-Ze rekuerdo daukazu gerrakoak?

-Gaztiak giñen eta horrela rekuerdo partikular... Gero gerrie bukau zan eta gero gerrie bukau zanian ama alargunez librau nintzen; "por hijo de viuda" librau nintzen, eta gero anai zanak, harek hemezortzi urte edo, lanien hasi zan haure, eta harek dirue irabazten zula, harek mantendu zikela ama eta atzera ni soldautzara hots ein zeben. Eta ni soldautzan alde batera neure faltaz edo izan nintzen, zegatik han soldautzatik etorritta nere edadeko lagun bat ikusi nun kalien eta, "Hi ze, ze pasatzen zak Joakin, hi ez haiz jun?", eta, "Ez, belarritik hola eta hola zeukat, supurau ta, zikiñe ta, miñe eta zera zeuzkeat, eta hori alegau nian", eta hori alegau zulako haure librau ein zeben, eta pentsau nun, bai, nik ere okasixue izeten baldin badet esango diat, eta berriz hots in zianin alegau nuen belarrittik eta orduen "auxiliar" eman tzin eta ia libre. Eta nere kintiek xei edo zazpi urte, edo ze esate-ben, ein emen zittuen eta ni haregatiken behintzet ia libre.

-Asi ke zenbat urte egin zittuzun soldauxkan?

-Nik gutxi. Nik frentien eta abar ba zenbat, urte bat, bi..., holakotxen bat.

8. Tropak herrira etorri zirenekoa

- **Erref:** AZK-015/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Goserik ez zuen ezagutu gerra denboran. Tropak herrira etorri zirenean herritarrak kanpora, Bizkaira eta inguruko herrietara aldegin zuten, baina Julen herrian geratu zen. Gerran zeudeneko osabaren inguruko pasadizo bat kontaktzen du.

Transkripzioa

-Eta goseik ezagutu zenduen?

-Gosie? Bai, garai hartan hamen gosie; goseik hola esateko, gosia ez baina.

-Eta gerra hemen Azkoitin? Gerra-denboran?

-Ez, gerra-denporie bi-hiru hilabete, ez dakit zenbat izengo zin, gero soldautzara hots ein zebein gero jun in ber izan nun, baiña bestela gerran hamaxei urte baneuzkan nik ordun eta. "Aurrera" esaten zan ordun hamendiken horrea jutie, osea, tropak hona zetoztela gero hamendiken batzuek zeara jutien zien, Bizkeire, eta nik bezperan erabai nuen ba zera eittie, geratzie. Osaba zana, besterik ez neuken etxien, mutilzaharra zan osaba zana, eta bixok erabagi gendun geratzie hamen. Eta ordun esaten zan, herrire tropak sartute eta ez dakit ze indde ta, bata eta bestia, okerrak itten zittuela ta, politikan diferentiek zienai zera izeten zila ta. Ta gero ni orduen, azkenengo kamiona zan hamen herrittiken, jendie ia ihesik, eta osaba ikusi nun, ni plazan pelotan eta etxera nijula. Ene, osaba. "Atzo hola gerau gitxian, ez jutekotan, eta oin hori bazik ba", eta haure bere lagunekin animaute hara jun zan. Haixek uste det in zebela Azka(ra)ten jatxi batzuek eta handiken oiñez Ondarrure. Gero Ondarrutiken hara eta hona. Gero Ondarrutik ta handiken zabaldu ein zien eta Amoribietan gerau zan. Han bere lehengusu batzuk bazeuren eta han gerau zan eta gero handiken etorri. Gero neu jun nintzen hamen, alkatie orduen lehengusue nun, alkate zauena, Irureta, ta hari hitz egin eta jun, eta salbokonduktue ber izeten zan ordun gero trenien ibiltzeko, eta Amoribietara jun eta Amoribietatiken neuk ekarri nun osaba etxera.

9. Dantza taldean herrian eta herritik kanpora

- **Erref:** AZK-015/010
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eskolan hasi zen dantza ikasten, Epenekoa ezizeneko irakasleak erakusten zien. Nazionalistek ere, 'Bizkaitarrak' zeritzenek, taldea bazuten eta haiek Donostiatik etorri ohi ziren Azkoitira dantza erakustera. Orduan karlistak eta nazionalistak zeuden eta era ezberdinean erakusten zuten dantzan. Poxpolin jantzita aritzen ziren; eta, gerra hasi zen egunean ere, Madarixan ari ziren dantzan. Kanpora joaten ziren. Donostiako Atotxa futbol-zelaian dantzan aritu zirenekoa eta anekdota bat kontaktzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Eta gazte denboran erromerietara juteko ohiturarik bazenuten?
- Gutxi. Orduen edade zera genduken eta gazteiek giñen artien erromeri..., ordun ez, artien gazteiek giñen eta. Bestela mendixen eta bai ibili, bestela mendixen asko ibiltzen nintzen. Fubola, mendixe eta hortxe.
- Dantzan ere noizbaiten hasi zinen, ezta?
- Dantzan gazte-gaztetatiken. Eskolatik hasi giñen. Eta eskolan dantzan, eta hantxe.
- Eskolan dantza erakusten zuen, eskolan bertan?
- Nik ez, baiña neuri bai.
- Baiña erakusten zuen ordun?
- Bai.
- Eta zein izan zenun maixu?
- Oin ekarriko du erretratue. Ia ezautzen dezun. Hermanuek, hamen ikusten die... Bat... ez da paparra ikusten. Hamen dao bat hermanue esaten giñona, ta hamen herritarra 'Epenekua' edo, zera zan Epe, Epe esaten giñon, Epeneko harek erakusten zigun. Eskolan ibili nitzten denporan haure ibili nun maixo. Gero hamen alde batera, eskola haure eta beste bat zauen hamen, nola esango dizut nik, nazionaliste edo hola zea zan ordun, 'Bizkaitarra'-edo esaten zikona. Eta han´e grupue formau, dantzan eta, eta guri orduan donostiar batzuk etortzen zien hona erakustea. Eta han ibili nitzten, han´e. Eta hamen´e eskolan´e bai maixu ze honekin, eta bestie aparte. Eta ordun politika, bi bando bezela zeuren, karliste eta nazionaliste bezela edo, eta batzuei, maixo batzuek honek zera erakusten zun eta bestiek bestera.
- Parejaka ala?
- Ez, bestela, grupue. Nik eztakit, dantzari bizkaitarrak eta esaten zeben ordun. Eta bat karliste edo zana, hareandiken Florian eskolan ibili nintzen, harek´e erakusten zun haure´re zea zan. Eta gero bestie, beste grupue aparte, politika bezela edo zea jarritte, eta han azkottiar batek erakusten zun, Antton Aldako zan haure, erakusten zuna, eta donostiarrek´e etortzen zien erakustea; eta hantxe. Eta grupue formaute. Eta gero orduan hamen 'pospoliñek' esaten zan, eta emakumien grupue´re bai, neska-mutillak. Gerrie erten zun egunin´e gu Ma(da)rixan ari giñen dantzan. Eta gero han esan ziguen kalera bajatzen giñenin ahal degunen aldau eitteko eta baezpadare.
- Nola jazten ziñeten?
- Zuri. Dantzari bezela, baiña baezpada´re ordun erten berri zan eta batzuek karlistek, bestiek bestera. Hori esan ziun behintzet, kalera bajautakun aldau eta zera eitteko.
- Eta inguruko herrietara ta juten ziñeten dantza eittera?
- Ba artien hainbestera. Donostin eta izan giñen, Donostin futbol kanpuan, Atotxa zan orduen eta dana beteta, dantzari hamengo Gipuzkoko zera zan, dantzari, futbol kanpo dana beteta egon zan. Neska-mutillak edo. Eta han, beti hori akordatzen zat, anekdota edo nola esaten da, kontue, eta kalien pasieran gebillela emakume batzuk bazetozen eta gu´re bai espaloian pasieran giñozten eta, eta hala esan zixon batek, gu baiño zahartxua: "Quítate de la traba!". Esan zun, eta denda batea jun giñen eroatera "pan de leche" edo zea zan eta, "pan de las diez céntimos".

10. Realeko jokalaria izatera pasa

- **Erref:** AZK-015/011
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:19:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Izarraitz lagun arteko futbol taldetik Anaitasunara pasa zen, eta handik Donostiara eraman zuten, Realera, 21 urterekin. "Interior derecha" postuan jokatu zuen. Ez zuten dirurik irabazten gaur bezala, norberaren gastuetarako adina soilik.</p>

Transkripzioa

- Eta futbol ekipon esan dezu leno ta...
- Hamen ibili nintzen, lagun artien ibili neu lelengo, kuadrille, bi kuadrille edo kuadrille batek ekipue formaute. Izarraitz izena.
- Gero ibili ziñen Anaitasunan edo nunbaitten?
- Bai, gero Anaitasunan. Gero Donostire eman nittuben hamendiken, eta Donostin hantxe jokatzen hasi nintzen, hemezortzi-hemeretzi-hogeta bat urtekin-edo.
- Realen?
- Bai.
- A bai?Ordurako haundia izango zan ba hori ezta?
- Bai, gureztat, Realen jokatzeagatik eta zera eitteatiken, pagau ez zeбен eitten, justu-justu.
- Ze puestotan jokatzen zendun zuk?
- Nik "interior" esaten zan ordun, "interior derecha" edo. Ematen zuen pagatiken ein ber zendun biajie, fabrikeko jornala galdu eta bazkaldu handikan ein ber, osea hillie pasatzeko're nahikue justo. Ordun oin bezela ordun ez zan fitxajeik eta hola, garai hartan hainbesteraño zera eitten. Eta gaiñera tratue itterakuen hori bestie gogorra; tratue eitterakuen zer da ta, ni konparazixo batera zer esango dizut, sukaldien, eta beste nerekin jun zienak beste bi haixek tratua itten, osea ni aparte nintzela, osea ze tratu in zeбен ere ez nun han zerik. Ein zanian tratue gero orduen hola eta hola eta.
- Konformau egin behar.
- A bai. Orduen Donostiraño jun eta jokatzeagatiken eta ere gureztat zera zan, gauza haundixe zan.

11. Atzerritarak fitxatu nahian atzetik, baina etxean bere beharra

- **Erref:** AZK-015/012
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Realean bi urte egin eta bidali egin zuten; orduan Tolosako taldean hasi zen eta han Realean baino soldata hobe zuen. Hiru urte egin zituen eta beste talde atzerritar batzuetatik eskaera ere izan zuen baina ama alargunak bere laguntza behar zuela eta atzera egin zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta gero han bi urte, bigarren urtera edo bialdu in nittuen. Eta gero jun nintzen Tolosara. Eta Tolosan bertan ´e gehixao pagatzen zebeñ Realien pagatzen zien baiño gehixao pagatzen zien.

- Eta Tolosakua ze talde zan?

- Tolosa; eta han bi-hiru urte edo, eta han nabillela Alikantera hots ein zien. Eta Alikantera jun nintzen, eta Alikanten bale bezela, baiñe ama alarguna, haure nere behar zan eta. Han bai, han oso, garai hartarako behintzet, eta hamen ingururako han oso ondo. Hara jun bai baiña ez nun fitxau. Gero ama nere behar nola zan ba...

- Bueltau egin ziñen.

- Bai. Ordun izan nittun beste hiru edo lau ekipo ´re bai ondoren.

Maestranza Aérea edo esaten zixoen bat, haure Huescan edo zera zan eta, han [...], Kanpo Abiazixue, abiadoriek edo ez dakit zer zan. Hola zan ekipue zeukena eta, neuk nahi nun ofizixue erakutsiko ziela eta han pagie ere Donostixen aldien behintzet ba...

- Eta ze ofizio eskau zendun?

- Ez nintzen geratu. Alikanten zera ein nintzenin ez nintzen jun, ez zien laga. Lehen esan de(te)na, amak lotu, amak behar eta ama, haure atenditzeagatiken ba...

- Fubolista ona izango ziñen?

- Ez dakit. Hamen herrixen egon nintzen eta hala izengo nintzen herrireko eta hola zera itteko baiñe, pagau hola gutxi eitten zan.

12. Futboleko entrenatzaile eta Anaitasunako aholkulari tekniko

- **Erref:** AZK-015/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Gerora futboleko entrenatzaile lanetan aritu zen Azkoitian eta horretarako, titulua atera baharra izan zuen Donostian. Anaitasunako aholkulari tekniko ere izan zen.</p>

Transkripzioa

-Eta fuboleko presidente egon ziñen?

-Ez. Fubolista hamen ibilli nintzen gerora entrenadore. Eta hori titulue atera gendun behintzet Espaiñiko kanpeon atara gendun.

-Nun ateratzen zen titulu hori?

-Kursillue ein ber entrenadorien kursillua.

-Nun, Azkoittin?

-Ez, Donostian, eta eman ziaben. Gero hoixek bi titulo edo zerak die, batzuek hamengo ekipuekin eta zera eitteko, berriz beste batzuk kategoria haundixagoko. Nik txikixa atera nun, haundirako ez nintzen presentau ´re ein.

-Ume gaztek entrenatzen zittuzun?

-Geure edadekuok edo, fubola ´re kategorixek ba, profesionalen zera hoixei, eta [...], eta ni gero hamen hasi nintzen herrixen eta kanpeon atera nun.

-Eta bitartean lanean jarraitzen zendun?
-Lana, bai. Gero direktibo´re egon nintzen, "asesor técnico" esaten zen hori´re egon nintzen Anaitasunan. Ordun Nanclares edo beste bat zeon entrenadore, eta harekin terzerara edo ixo zan; eta hari lagundu, eta Atotxan jokau gendun Hernanin kontra.
-Zer lan egiten zenun?
-Hari lagundu. Harek berak egiten zun, haure maixu zan, hamen umien maixue.
-Eta hari laguntzen.
-Bai.

13. Azkoitian ezkondu eta Madrilera eztei-bidaian

- **Erref:** AZK-015/014
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

33 urterekin ezkondu zen Azkoitiko parrokiari Azkoitiko neska batekin eta eztei-bidaiara Madrilera joan ziren. Arreba bat lekaimea zuen eta hura bisitatzen izan ziren Tuteran.

Transkripzioa

-Hori eginda gero izan ziñen soldauxkan edo aurretik?
-Ez, soldautzie aurretik. Gerria akabau eta gero fubolien ari geala gero, ordun.
-Eta noiz ezagutu zendun zure andrea?
-Andrea? Auskalo, urte asko.
-Eta ezkondu ze ein ziñen, orduan?
-Ez, ezkondu gerora, hogeta hamahiru urtekin edo ez dakit zenbatekin. Mutil zarra.
-Eta nun ezkondu ziñeten?
-Hamentxe, parrokiaren.
-Andrea azkoitiarra?
-Bai, azkoitiarra.
-Nolakoa izaten zen orduko boda, banketea eta?
-Orduen bodie eiñ eta gero tabernara, Alameda edo, plaza erdixen zera baten zegon eta hantxe bazkaldu.
-Eta "Viaje de Novios" a?
-"Viaje de Novios" era zerera jun giñen, Madridera. Han lagun bat koziñero neukan. Eta haure ikusixaz edo haren inbitazixoz Madridera [...]. Panplonara hamendik lelengo; arreba monja´re baneuken Tudelan eta haure´re bixitau edo zera eiñ eta gero handiken ba Madridera.

14. Kongregazioak: Luistarrak eta Mariaren alabak

- **Erref:** AZK-015/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:21. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Kongregazioan egon zen, Luistarretan. Konfesatzera astero joan behar izaten zuten eta bekaturen bat eginez gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Emakumeetan "Mariaren alabak" deiturikoak izaten ziren. Txapel gorriak jaztea reketeei parre egitea zela eta, urdina jantzi behar izan zuten Luistarretan.

Transkripzioa

-Eta elizakin lotura haundia zenuten zuek? Konfesatzera eta?
-Orduen bai, orduen kongregazixue esaten zitxoan, baina Luistarrak.
-Ze izaten zan hori?
-Luistarrak, kongregazixue.
-Eta ze izaten zan hori?
-Luistarrak izaten zan hillien behin jaunartzera jun, eta kongregazixuen mutil danak edade bateko, ez dakit zenbatera arte, eta orduen dantza heldurik eitteik ez zenduken. Dantza heldue eitten ikusi edo eitten bazan ba...
-Kastigua?
-Kendu itten zan.
-Kongregaziotik?
-Bai.
-Eta derriorra zan hilleroko...
-Bai. Derriorra bezela. Kongregazixuen behintzet derrior... apuntaute ez zan itten zenbat, baiña...
-Konfesau eta egin behar izaten zenuten?
-Bai. Orduen konfesau astero ixte izeten zan. Orduen ikusi ein ber izeten zen zera, Don Domingo eta hoixen konfesonaxo aurrie dana beteta. Edadeko jendia, gure edadeko eta danerako jentia.
-Dan-dana ez zan konfesauko orduan ere.
-Gehixen-gehixena, orduen elizara jendie. Umiek giñen artien esate baterako ta, gurasuen mende eta.
-Komuniua nun egin zendun?
-Hamen bertan elizan. Esan dizuena, kongregazixue izeten zan, zortziretan edo zeran dana, ez dakit zenbat ume jungo giñen, mutillek, aparte neskak eta mutillek. Bestiek "hijas de María" izeten zien, emakumiek, eta gizonezkuek Luistarrak. Eta Luistar hoixetan, konparazixo batera, dantzan'e leheno pikie politikan nola zan edo, eta ez zebeu amititzen, guri behintzet, ordun nazionaliste papelada hola, grupue ez zebeu amititzen, eta ordun detallie ba txapel gorrixe, ordun pixket politikamente ez giñenak zerak, txapel gorrixe ibiltzie ta reketiena zala eta, joño! Eta gero Luistarrakin txapel urdiñakin.

15. Azkoitiko industria nagusia: abarketak eta txapelak

- **Erref:** AZK-015/016
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:27:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>Azkoitian hiru lantegi inguru ziren eta denak joste lanetan aritzen ziren: txapelak egiten, abarketak josten, etab.</p>

16. Erljioak garrantzi handia zuen Azkoitian

- **Erref:** AZK-015/017
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:27:58. **Bukatu:** 00:28:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Azkoitian guraso gehienak erljioarekin oso lotuak zeuden eta seme-alabek elizara eta prozesio zein elizkizunetara joan behar izaten zuten.

17. 15 urtez dantza irakasle Azkoitian

- **Erref:** AZK-015/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:49. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Herri-lanean ez zen aritu, baina bai dantza munduan Bilbora Urrategiko koronaziorako dantzak ikastera joanda.Trenez joaten zen Bilbora. Dantza irakasle ere aritu zen Azkoitian 15 urtez.

18. Azkoitiko jauregiak eta Urolako trenak

- **Erref:** AZK-015/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:30:09. **Bukatu:** 00:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Azkoitian bi hiru familia aberats zeuden garai hartan. Jauregiak ere baziren, baina berak ez zituen haien istorioak ezagutu. Urolako trenak martxan jarri zuten egunean bertan izan zen Julen, garai hartan ez zuten kotxerik.

19. Dantza txapelketan epaimahaiko

- **Erref:** AZK-015/021
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Bideoz ikusi eta beste herrietako dantzak erakusten zituen. Dantzako bikoteak ez zuen gogorik jarraitzeko eta hala utzi zuten. Epaimahaiko egon zen dantza txapelketetan behin edo behin.

Sagarzazu Irureta, Julen | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com